

# NOLA LANDATU BARATXURIAK




Aukeratu gutxienez 20 zentimetroko sakonera eta drainatzeko zuloak dituen loreontzi bat.




Baratxuri erraboila bat baino gehiago landatu nahi badituzu, loreont-ziak erraboila horiek sartzeko adina handi izan beharko du: baratxuri erraboilen artean tartea utzi behar da (10 bat zentimetro) eta horie-tatik ontziaren ertzera ere bai (beste 10 bat zentimetro).




Jantzi lorezaintzako eskularruak.




Nahastu lurra eta ongarria loratetegirako harearekin. Proportzio honetan behar luke: 3 lur kantitateko harea kantitate bat.




Bete zure ontzia lurrez, eta utzi 2,5 zentimetro hutsik goiko aldean.




Hartu baratxuri erraboila bat. Eutsi, mutur laua beherantz duela eta mutur puntazorrotza gorantz duela.




Sartu erraboila lurrean, presioa eginez. Erraboilaren goiko aldearen eta lurraren goiko aldearen artean 2,5 zentimetro lur utzi behar da.




Landatu baratxuri erraboilak, bata bestearen artean 10 zentimetro utzita.



Jarri loreontzia egunean 8 bat orduan zuzenean eguzkia jasoko duen toki batean. Sukaldeko leihoa izan liteke, esaterako, loreontzia kokatzeko toki on bat.



Zure etxea oso beroa bada,
maizago ureztatu beharko duzu.

Maiz ureztatu;
heze egon behar du beti,
baina ez bustita. Neurri
handi batean, jasotzen
duen eguzki argiaren eta
etxeko epeltasunaren
araberakoa izango da.



1. Erreparatu nola hasiko den baratxuria hosto berdeak ematen, tipulina bezalaxe.
2. Ernetzen hastean, moztu loreak ipurditik. Hori egitean, erraboilak handitzeko erabiliko da sortzen den energia guztia.

8-10 bat hilabetera, bildu baratxuriak.
Hostoak hiltzen hasten direnean,
kafe koloreko bihurtzen dira.





Zintzilikatu jasotako baratxuria toki fresko
eta lehor batean; esaterako, garajean.
Gutxi gorabehera astebetean lehortzen egon
beharko dute.

Erabili baratxuri lehorrak janaria prestatzeko.



BARATZA etxean

www.baratzaetxean.eus